

**Kalitatearen kudeaketa** funtsezko tresna estrategikoa da Talleres Mecánicos Legutianoren lehiakortasun, errentagarritasun, iraupen eta etorkizuneko garapenerako, enpresaren **oinarrizko helburuetarako**, hain zuzen ere.

Gure oinarrizko aktiboa **Bezeroak** izanik, haien itxaropenak eta beharrak guztiz asetzeari **lehentasunezko xedea** dugu, **beren arauzko eta legezko eskakizunak betetzeko gaitasunaren** bidez.

Talleres Mecánicos Legutiano **Pertsonak** direnez haren funtzionamenduaren eta emaitzen funtsezko eragilea, haien etengabeko prestakuntza ere **lehentasunezko helburua** dugu, beren gaitasun profesionala bermatuta egon dadin.

**Zuzendaritzak**, bere erantzukizunei dagokien berezko eginkizun gisa, lidergoa egikaritzen du **kalitatearen kudeaketa** bultzatuko duen jokabidea izateko; hala, enpresa honetako langile guztion betebeharrak horren betetzeari dagokionez sustatzaile, gidari eta eredu jarduten du.

**Zuzendaritzak** bere gain hartu du **ISO 9001 Arauaren** aplikazioan oinarritutako **Kalitatea Kudeatzeko Sistema** sortzeko eta Erakundeko maila guztietan ezartzeko eta mantentzeko erantzukizuna, eta honako hauen garrantzia eta betetzen direla bermatzeko konpromisoa publikoki agertu ditu:

- Bezeroen eskakizunak betetzea, arauzkoak eta legezkoak, bai eta Talleres Mecánicos Legutiano borondatez bere egiten dituenak ere.
- Bezeroari arreta pertsonal eta profesional azkar, eraginkor eta kalifikatua ematea.
- Talleres Mecánicos Legutianoaren helburuak ezartzea, berraztertzea eta eguneratzea.
- Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren funtzionamendurako beharrezko baliabideak izatea.
- Talleres Mecánicos Legutiano eta haren emaitzak etengabe hobetzeko lan egitea.
- Kalitate-politika enpresako alde interesdun guztiei barne- eta kanpo-mailan jakinaraztea eta ulertaraztea.
- Politika hau aldizka berraztertzea, etengabe egokitzen dela bermatzeko.